# MUNGIARRA

Mungia Udala

www.mungia.eus

## Gure dirua
Bigarren Aurrekontu Partehartzaileen bigarren fasearen emaitzak

## Mungia eraikiten
Herritarrentzako irisgarritasuna eta bizi-kalidadea hobetzen herriko puntu desbardinetan

## Kirola
Udal Kiroldegiak lau areto gehiago izango ditu




# ARGAZKI LEHIAKETA
## 2020ko egutegia

Baietz ein!





64

Septiembre 2019ko iraila

# Kaixo, mungiarra:

Agintaldi barri bat daukagu hasi barri. Alderdi ezbardinetako hamazazpi pertsona izan gara hautatuak, hurrengo lau urtetan, Mungia eta mungiarron alde ahal dogun guztia egiteko.

Batzuk Gobernuaren ardureagaz, eta beste batzuk oposizinotik. Seguru nago guztiok ipiniko dogula daukagunik onena helburu hori betetearren.

Aldizkari honetan, betiko lez, egiten dogunaren zati bat erakusten dogu. Gure ustez, egunero lantzen gabilzan gaien adierazgarri dira.

Hurrengo lau urteetan, bide bardinetik jarraituko dogu, hau da, gure herrian daukaguzan zerbitzuak mantendu eta hobetzen, gure Udala eta berton gagozanon egitekoak gero eta eraginkorrago eta gardenagoak egiten; gure aisialdia osasunean eta baloreetan oinarritzen; gure izaera, gure nortasuna, gure hizkuntza jagoten eta aberasten; pertsonengan pentsatzen, gaur Mungian gagozanongan zein gure atzetik etorriko diranengan; gure alkarteak eta euren arteko hartu-emonak sendotzen laguntzen; gure kaleak gero eta erosoago eta seguruagoak egiten; beharraren faltan dagoanari laguntzen. Danontzako aukera bardinak sortzen saiatuz eta, ahaztu barik, andren eta gizonen arteko benetako bardintasunera heltzeko, badaukagula beharra egiteko hondino. Gure herria, gure lurra, hartu doguna baino hobeto itxi gurean….

Gauza asko dira, bai, baina guztion laguntzagaz apurka-apurka egin ahal diranak.

Ilusinoa ez jaku faltako.

Besarkada bat
*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*



Ager Izagirre, Mungiako alkatea

## Kaixo, mungiarra:

Acabamos de comenzar un nuevo mandato de cuatro años. Tanto desde el gobierno como de la oposición, estoy seguro de que pondremos lo mejor de nosotras y nosotros para trabajar a favor de Mungia.

Seguiremos manteniendo y mejorando los servicios, apostando por la transparencia, cuidando nuestra identidad y nuestra lengua, pensando en las personas, trabajando por la movilidad, colaborando con las asociaciones y fomentando la igualdad.

Son muchos aspectos, pero podremos hacerlo con la ayuda de todas y todos.

No nos falta ilusión.

Un abrazo
*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*



Udal korporazinoa / Corporación municipal

# "Cittaslow" da MungiHarro 2020 egutegiko gaia




## 2,1...klik!

Datorren urteari begira ***Cittaslow: Biziteko modu bat*** gaia aukeratu da Mungiharro 2020ko egutegia argazki-irudiz honitzeko.

Euskal Herri osoan hiru udalerrik baino ez dabe lortu CITTASLOW kalidade-ziurtagiria: Mungia, Lekeitio eta Balmaseda, hain zuzen bere. Hori dala-eta, argazki lehiaketaren edizino honetan **mungiarrok aukeratu dogun bizimodu lasaia zelangoa dan azalduko dogu udal egutegiaren bidez**, beti bere, gure izakerea, nortasuna eta kultura jagonda.

**LEHIAKETAN PARTE HARTUKO DABEN ARGAZKIEK GURE HERRIAREN FILOSOFIA LASAIA ETA HURBILA ERAKUTSI BEHAR DABE.**

**Egutegiak agertuko diran argazkiak prozesu partehartzaile baten bidez aukeratuko dira.**

Bidalitako argazkiek *Cittaslow* gaiagazko loturea izan behar dabe, hau da, Mungiako filosofia hori azaldu behar da irudian: gure bizi lasaia, bertoko inguruko produktuen konsumoa, gure ondarea, kultura eta kirola, gastronomia eta era osasungarrian jatea. Horren ganera, inguru natural ederra eta baketsua eta bizi-kalidade aparta daukagu.

**EGUTEGIKO LEHIAKETAN PARTE-HARTZEKO EPEA URRIAREN 20AN BUKATZEN DA.**

**Argazkiak emailez (mungiarron.egutegia@gmail.com) edo HAZ bulegoan entregatu beharko dira urriaren 20a baino lehen** eta parte-hartzaile bakotxak 12 argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Behin argazkiak jasota, adituz osatutako epaimahai batek egingo dau lehengo aukeraketa eta gero jendaurrean jarriko dira erakusketa birtuala eta ohikoa eginez.

**Zeuok bozkatutako argazkiak izango dira 2020ko egutegia osatuko dabenak**. Bozketa hori era bitan egin ahal izango da: erakusketan bertan edo online.

**Irabazleak 300 euroko bonoa eta egutegiaren azalean agertzea lortuko dau.**

El concurso del calendario MungiHarro 2020 tendrá como tema: ***Cittaslow: Una manera de vivir.*** Mungia es uno de los tres municipios de Euskal Herria en tener el certificado Cittaslow y deseamos que esa forma de vivir pausada y la manera de cuidar de nuestras costumbres, deportes, paisajes, productos y gastronomía se vea reflejada en las imágenes del calendario.

**Las fotografías se podrán enviar vía e-mail a: mungiarron.egutegia@gmail.com o entregar presencialmente en el SAC. El plazo de participación terminará el 20 de octubre** y, después de una criba realizada por un jurado experto, seréis las y los mungiarras quienes podréis puntuar de manera participativa vuestras fotos favoritas, tanto presencialmente como online.

# Euskerea bultzatzeko enpresen topaketa-saioa

Euskerea azken urteotan, apurka-apurka, espazio batzuk irabazten eta beste batzuk sendotzen doa (eskolea, komertzioa, administrazinoa…). Baina egia da oraindik bere, euskereak zailtasunak dituala hainbat eremutan; eurotako bat enpresa mundua da.

Gure herrian sektore horrek (lantegiek) daukan garrantzia eukita, enpresa arloko arduradunei bideratutako **topaketa-saio** bat egingo da **zemendiaren 14an** (12:00etan) Agirre Jauregian.

Saio horrek hiru helburu nagusi eukiko ditu:

- **Herriko enpresen euskera-maparen barri emotea.**
  2018ko aurrekontu partehartzaileei esker gauzatu dan azterlan hau oinarri sendoa izan daiteke-eta aurrerantzean egin beharreko lanerako. (Ikusi www.mungia.eus/idatziak-eta-argitalpenak)




Gure herriko enpresa guneetan euskereak daukan presentzia bultzatzea da helburua.

- **Enpresen arteko euskerazko hartu-emonetarako direktorio bat sortzea.**
  Enpresetako euskaldunak identifikatuta, euren arteko hartu-emonetan euskerearen erabilera bultzatzeko.
- **2020ko Euskaraldian enpresek izango daben parte-hartzearen barri emotea.**
  Izan bere, aurten hasiko dira enpresak 2020 Euskaraldirako prestetan.

Mungiako enpresa guztiak dagoz gonbidatuta saio horretara. Arina, praktikoa eta argia izango da.

El próximo 14 de noviembre Agirre Jauregia acogerá un encuentro dirigido a las personas responsables de las empresas de Mungialdea con el objetivo de dar a conocer el mapa del uso de euskera de las empresas, crear un directorio empresarial para impulsar el trato en euskera y hablar sobre la participación de las empresas en el Euskaraldia 2020.

# Euskerazko tribialaren arrakasta

"Gurot", 12 urtetik 16ra bitarteko gazteentzako telefonoko jokoa (euskerazko tribiala), 2018ko abenduan jarri zan martxan. Mungian ez eze, Uribe Kosta, Uribe-Butroe, Getxo, Erandio, Leioa, Txorierri osoan bere. Harrezkero herriko hainbat eta hainbat gaztek erantzun dabez bertan agertzen diran galderak, era eta jakintza-arlo guztietakoak. Arrakasta horren erakusgarri dogu bagilean zozkatu zan saria (iphone bat) mungiar bati tokatu izana.

Bakarka edo beste baten kontra jokatzeko aukera emoten dauen aplikazino hau hobetzen eta osatzen jarraitzen dogu. Galdera gehiago eta lurralde zabalagoa hartuko dau laster barru, Bizkaiko beste hainbat herritara zabalduko da-eta.

Horregaitik, eta aplikazinoari aukera gehiago emotearren, datorren urtean taldeka jokatzeko aukera zabalduko da. Hori oraindik aktibatu barik badago bere, ez ahaztu udagoien honetan sari barriak dagozala eta zuon esku dagoala irabazleak zeuok izatea.



Zozketaren irabazlea, saria eskuan dauela, Eli Bilbao Euskera Saileko zinegotziagaz.

La aplicación Gurot, un juego de preguntas y respuestas en euskera para el teléfono móvil, está siendo un gran éxito entre la juventud. Por ello, de cara al año que viene se dará la opción de jugar en grupo en esta app.

# Aurrekontu Partehartzaileak

Baietz ein!

## Presupuestos Participativos

El pasado junio se celebró la segunda fase de los **Presupuestos Participativos consensuados entre todos los partidos políticos que conforman la corporación municipal.**

A través de este proceso, las y los mungiarras hemos podido priorizar y puntuar, de entre los 8 proyectos finalistas, cuál hemos considerado más interesantes para llevar a cabo con los 400.000€ destinados a esta iniciativa. En total 538 personas han tomado parte telemáticamente y presencialmente.

**¡Una vez más muchas gracias a todas y todos por haber participado!**




Parte-hartzaileen %59k euskeraz egin ditu hautaketak.

## Bigarren fasea

Herritarren eretxi eta lehentasunei entzuteari garrantzi handia emoten deutsagu. Hori dala-eta, bigarrenez antolatu doguz Aurrekontu Partehartzaileak **Mungiako Udala osatzen dogun alderdi politiko guztien adostasunagaz.** Era honetan, herritarrok Udalaren **aurrekontuaren 400.000€ zertan inbertituko dan** aukeratzeko erea izan dogu.

**MUGIMENDU HONEN HELBURUA HERRITARRAK INPLIKATZEA ETA HERRIAK BEHAR DITUAN INBERTSINOEN ZATI BAT ZEHAZTEN LAGUNTZEA DA.**

Prozesu honen lehen fasean herritarrok dirua zein proiektu motatan inbertidu daitekeen idatzi genduan. Bigarren fasean, bagilaren 3tik 16ra bitartean burutu zana, **538 mungiarrek hartu genduan parte** herrian zehar egun ezbardinetan jarritako bitartekoak erabiliz (hautestontziak, kutxak, karpa eta internet) puntuatzeko aukeren bitartez.

Bertan, Aurrekontu Partehartzaileen lehenengo fasean aukeratutako **8 proiektuak puntuatu genduzan** 1etik 8rako kalifikazinoa emonda. Emaitzak ondokoak izan ziran:

**Laugarren postuan "Olalde zubia barriztatu" proiektua atera zan** (200.000€ko kostu estimatua); baina lehenengo hiruren kostua kenduta, geratzen izan dan ganerako aurrekontua 60.000€koa izanda, ezin izango litzateke osorik gauzatu.

Horregaitik, 2019ko aurrekontu irekiaren parte hartze prozesuaz arduratzen dan udal batzordeak, bere ordez, hurrengo proiektuak burutzea erabagi dau, hau da, "Bentades aterpeko errokrodromoa konpontzea" eta "Mungia belaunaldien eta kulturen arteko bizigunea bilakatzea"; izan bere, bi horreen kostu osoa **60.000€-koa da.**

**HERRIA DANON ARTEAN SORTZEN DOGU, BERAZ, ESKERRIK ASKO PARTE HARTU DOZUEN GUZTIOI!**

| Aurrekontu Partehartzaileen bigarren fasearen emaitzak: |
|---|
| Torrebillela umeentzako aktibitate parkea (aurrekontua: 100.000€) |
| Olalde: aretotik antzokira (aurrekontua: 200.000€) |
| Andra Mari kalea oinezkoentzako kale bihurtzea (aurrekontua: 40.000€) |
| Olaldeko zubia barriztatu (aurrekontua: 200.000€) |
| Bentades Aterpeko errokodromoa konpontzea (aurrekontua: 50.000€) |
| Mungia belaunaldien eta kulturen arteko bizigune bilakatzea (aurrekontua: 10.000€) |
| Txakurrek olgetako leku bat sortzea (aurrekontua: 25.000€) |
| Autokarabanentzako aparkalekua egitea (aurrekontua: 35.000€) |

# Jasangarritasun energetikoaren alde lanean

**LED teknologiaren aldeko apustua**

Gure herriko instalazinoen eraginkortasun energetikoa hobetzeko erronkari eusten jarraitzen deutsagu, hau da, Energia Iraunkorrerako Ekintza-plana (EIEP) gauzatzen. Horretarako, jasangarritasun energetikoaren alde eginda, apurka-apurka Mungiako hainbat zonaldetako kanpo-argiteria publikoa aldatzen segitzen dogu.

Oraingo honetan, urritik aurrera, **Belako industrialdean, Gamiz Bidean eta Erribide eta Trobika kaleetan** dagozan argiak kendu eta LED teknologiakoak jarriko dira.

**Guztira, errepiderako 68 MW-ko 175 LED argi eta kaleetarako 38MW-ko 4 LED argi jarriko dira.**



Belako idustrialdea

**ALDAKETA HORREEK GURE FAKTURA ENERGETIKOA MURRIZTEN ETA ZENTZUZKO GARAPENA BULTZATZEN LAGUNTZEN DABE.**

Horren helburua emaitza hobeak lortzea eta faktura energetikoek eta lanparetako aldaketa eta mantenuak eragiten daben **gastua txikiagotzea** da. Izan bere, LED teknologiako argiek bizitza luzeagoa daukie eta, ikuspegi energetikotik, eraginkorragoak dira.

Lan horreek 87.974,84 €-ko aurrekontua daukie.



## Trabajando por la sostenibilidad

**Cambio de luces a LED**

En el ayuntamiento seguimos apostando por la mejora de la eficiencia energética de las instalaciones de alumbrado público exterior dentro del Plan de Acción para la Energía Sostenible (PAES).

**Estos trabajos cuentan con un presupuesto de 87.974,84€.**

Esta vez, a partir de octubre, **se sustituirán las luminarias** existentes por equipos de tecnología LED en **el polígono industrial de Belako y en las calles Gamiz Bidea, Erribide y Trobika**, con el objetivo de dar resultados óptimos y aminorar el importante gasto corriente que representa la factura energética, ya que las luminarias de tecnología LED poseen una vida más útil y larga y son energéticamente más eficientes.

En total se instalarán 175 luminarias viales de 68 MW de LED y **4 luminarias ambientales** de 38 MW de LED.

# Mugikortasun Astean bete-betean sartuta



## Impulsando la Semana de la Movilidad

Han sido muchas las actividades llevadas a cabo estos días como los talleres de mantenimiento de bicicletas y patinaje, una gincana y una prueba de orientación para todas las edades.

Desde el ayuntamiento nos hemos sumado a la Semana Europea de la Movilidad, centrada en esta edición en la seguridad de peatones y ciclistas, para presentar diferentes posibilidades de movilidad sostenible y fomentar un cambio de comportamiento.



Udalean, aurten bere, bat egin dogu nazioarte mailako Mugikortasunaren Europako Asteagaz; eta, horretarako, hainbat ekimen antolatu doguz. Euron bidez**, mugikortasun jasangarriaren aukerak aurkezten eta portaera-aldaketa bultzatzen** gabiltza. Aurtengo gai nagusia **Oinez eta Bizikletaz segurtasunez ibiltzea** da. Helburua autoaren erabilera eta isurketak murrizteko urtenbide barritzaileak aurkitzea da, herritarrak horren garrantziagaz konturatzea eta teknologia barriak edo hiri-plangintzako neurriak probatzea.

Hori dala-eta, **hainbat ekimen eta ekintza** egin dira Mugikortasunaren Astearen barruan. Hasteko, pasa dan eguenean Mungiako ikasleak **oinez heldu** ziran ikastetxeetatik Foruen plazara. Bertan, zentzuzko mugikortasuna sustatu eben. Barikuan **bizikletaren oinarrizko mantenua egiteko eta patinatzen ikasteko** tailer eta **ginkanea**gaz gozatu eben gazteek. Domekan **orientazino-proba** egiteko aukera euki eben edade guztietarako herritarrek.

Bide beretik jarraituta, irailaren 28an Nekazaritza Ekologikoaren XX. Azoka egingo da Foruen plazan goiz osoan. Bertan, produktu ekologikoak erabilita egindako taloaren, germinatuen, ortu txikien eta pastaren ganeko tailerrak egingo dira. Horren ganera, bertoko jeneroz beteriko 3 otzara zozkatuko dira aipatutako postuetan erosketak egiten dabezan guztien artean.



Asimismo el próximo día 28 Foruen plaza acogerá durante toda la mañana la XX Feria de Agricultura Ecológica donde, además de comprar productos de la zona, se podrá tomar parte en diversos talleres y sorteos.

# Mungiberriko irisgarritasun-lanak martxan

Mungiberri mejorará su accesibilidad con obras que faciliten el tránsito de peatones con problemas de movilidad. Además **se generarán 20 plazas nuevas de estacionamiento** en espiga invertida entre las calles Atxurizubi e Intxausti Eresgille.

## Abuztuan hasi ziran

Gure herriko irisgarritasuna hobetzeko proiektuakaz aurrera jarraituta, abuztuan Mungiberri auzoko lanak hasi ziran, bertako biztanleen bizi-kalidadea hobetzeko eta inguruan mobiduteko erraztasunak emoteko.

Adaptazino- eta hobekuntza-lan nagusiak Atxurizubi, Guridi Eresgille eta Intxausti Eresgille kaleetan dabilz egiten.

### AUZOKIDEEN EGUNEROKO BIZIMODUA HOBETUKO DA.

**Sei bidekurutze barriztuko dira Guridi Eresgille eta Intxausti Eresgille** kaleetan. Obra horreen helburua mugikortasun arazoak daukiezan pertsonen zirkulazinoa erraztea da. Horretarako, bidekurutzetako **espaloiak zabaldu eta handituko** egingo dira, oinezkoek batetik bestera pasatzean ikuspen hobea izan daien. Horren ganera, altuera maila desbardinetan dagozan **espaloi edo kaleen arteko loturak erraztuko** dira.

Atxurizubi eta Intxausti Eresgille kaleetan aparkalekuak berrantolatzeko obrak egiten dabilz. Era horretan, **beste 20 aparkaleku barri** egongo dira, diagonalean jarriko diranak.



Irisgarritasuna hobetzeko obra honeek 60 egunean amaituta egotea espero da.

Obra honeek 194.133,17€-ko aurrekontua daukie.

# Eliminando barreras arquitectónicas

Buscando **aumentar la seguridad de paseantes y reducir la velocidad de los vehículos,** en octubre se eliminarán las barreras arquitectónicas que dificultan la movilidad.

**EN ARITZ BIDEA**, en el acceso a la rotonda de Goieta plaza, se ejecutará un paso elevado. (foto1)

**EN EL CRUCE ENTRE LAS CALLES BILBAO-IRUÑA** se ejecutará un nuevo tramo de acera. (foto2)

Se renovará **LA ACERA DE LA CALLE LEHENDAKARI LEIZAOLA** para completar la urbanización de acceso al ambulatorio. (foto3)

Se ampliarán las aceras en los cruces **DE LAS CALLES ERRIBIDE, TROBIKA, GOIETA PLAZA Y MASTIBARRENA** y se facilitará la comunicación entre aceras y calzadas. (foto4)



Foto 1




Foto 2



Foto 3



Foto 4

# Mejora de la accesibilidad peatonal en la calle Butroi para impulsar el comercio de la zona

Con el propósito de **potenciar el comercio** en una de las arterias principales del municipio, y a través del programa *Hirigune*, se establecerá una continuidad peatonal fluida desde la calle Zubiaga al eje comercial Butroi-Lauaxeta para favorecer y **mejorar la movilidad y el acceso peatonal.**

De esta manera se **dará más visibilidad y accesibilidad al entorno urbano comercial,** mejorando el tránsito de peatones, creando un espacio diáfano que posibilite el encuentro y la reunión, tanto para las personas como para los comercios de la zona. Asimismo, se creará una **zona verde** ajardinada.

El presupuesto para este proyecto es de 36.373,65€, estando financiado el 40% por el Ayuntamiento de Mungia.





Es necesario priorizar a viandantes sobre el tráfico rodado en esta zona comercial.

Gure herriko merkataritzaren dinaminazinoa indartzeko asmoz, oinezkoen irisgarritasuna eta sarbideak bermatzen dituan *Hirigune* proiektua gauzatzen gabilz Zubiaga eta Butroi-Lauaxeta zonaldean.

# Legarda Ikastetxeko arrapala barria



Uda honetan, Legarda Ikastetxean obrak egin dira, bertan dagozan jolastoki bien arteko irisgarritasuna hobetzeko. Horretarako, ikastetxera sartzea errazten dauen arrapala jarri da, barandaduna. Gurpil-aulki bategaz patio batetik bestera era erosoan pasatzeko aukera dago orain. Horrez ganera, arrapala egiteko euri-uren kanalizazino barria bere egin behar izan da. Behar horretarako 28.449,08€-ko aurrekontua erabili da.

## Nueva rampa en el recinto de Legarda

Se ha colocado una rampa nueva en el recinto de Legarda Ikastetxea para mejorar la accesibilidad entre los dos patios.

# Cubierta rehabilitada en Laukarizko Eskola

Con el fin de garantizar el bienestar y la protección del alumnado de las inclemencias meteorológicas y ante la necesidad de adecuar el estado de la cubierta del edificio principal de Laukarizko Eskola, se ha llevado a cabo una obra. En ella se ha procedido a la impermeabilización de la cubierta con impermeabilizante de poliuretano monocomponente, a la limpieza del pesebre y la recogida de las aguas pluviales del tejado. Asimismo se han reparado las fisuras existentes y sustituido las tejas rotas por nuevas. Para finalizar se ha pintado la cubierta. Esta intervención ha contado con un presupuesto de 8.101,21€.



ANTES



DESPUÉS

Laukarizko Eskolako estalkia iragazgaiztu, garbitu, konpondu eta barriztu egin da, bertako ikasleak erosoago eta seguruago egongo dirala bermatzeko.

# Contratación de 11 personas desempleadas




## Durante seis meses

Como en ediciones anteriores, desde el Ayuntamiento de Mungia vamos a realizar 11 contrataciones laborales dentro del Plan de Empleo comarcal. Estos contratos tendrán una **duración de seis meses** y se llevarán a cabo entre los meses de octubre-diciembre de 2019.

**El coste del programa para el ayuntamiento asciende a los 173.525,55€, estando financiado el mismo por el Ayuntamiento de Mungia en un 40% del importe total.**

Las contrataciones tienen como **objetivo facilitar el acceso al mercado laboral de personas con especiales dificultades** de inserción. Entre los colectivos destinatarios se encuentran las personas en situación de desempleo de larga duración, las mujeres, jóvenes y personas mayores de 55 años de edad, así como las personas perceptoras de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y en su conjunto las personas en situación de riesgo de exclusión social.

Las iniciativas que van a desarrollar las personas contratadas se enmarcan en **proyectos destinados a la comunidad**. Quienes tengan interés en tomar parte deberán tener empadronamiento en Mungia e inscripción hecha en Lanbide-Servicio Vasco de Empleo.

**Para solicitar más información pueden dirigirse a la oficina de Mungia de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo o a Mungialdeko Behargintza.**

Udalean sei hilabeteko 11 lan-kontratazino egingo doguz, urriaren eta abenduaren bitartean, Enplegu Planaren barnean. Kontratazino horeek lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak daukiezan pertsonentzat pentsatuta dagoz.

# 24 negocios nuevos en marcha

## Emprendimiento en nuestro municipio

Han sido 24 los negocios que en los últimos doce meses, de septiembre de 2018 a agosto de este año, se han puesto en marcha con el apoyo de los servicios técnicos de Mungialdeko Behargintza.

**De entre los nuevos negocios generados, 5 son comercios, 5 negocios de hostelería, 3 de sector primario y 11 de servicios**

Liderados por personas que han optado por el emprendimiento como alternativa de desarrollo empresarial, estos negocios han contado con el asesoramiento técnico de la entidad para elaborar su plan de empresa, un análisis de viabilidad económico-financiero, participar en formaciones en gestión empresarial y acceder a ayudas de creación de empresas.

Estos negocios han sido liderados por 12 mujeres y 13 hombres, siendo residentes de Mungia 16 de las mismas, el 66,66% del total. A su vez, tres de estas iniciativas empresariales han estado lideradas por personas perceptoras de renta de garantía de ingresos (RGI).

Akabuko hamabi hilabeteotan 24 negozio barriren sorkuntzan hartu dau parte Mungialdeko Behargintzak, ekintzailetza bultzatzen lagunduta.

# Gazte Sortzaileen III. edizinoa

Datorren abenduaren 12an Olalde Aretoak Gazte Sortzaileen III. azoka jasoko dau. Ekintza hau gazteen enpleagarritasuna eta ekintzailetza sustatzeko antolatu dogu eskualdeko bederatzi udalen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren artean Udal Gaztedi Mungialdea programaren barnean.

Ekimen honetan Mungialdeko bost zentroetako 14 – 17 urte bitarteko gazteek hartuko dabe parte eta zentro bakotxeko proiektu onenek sari bat jasoko dabe.

Ekitaldi berean, aurten negozio ekimenak martxan jarri dabezan 30 urtetik beherako gazte ekintzaileei bere diru laguntzak emongo jakez.



2018ko edizinoan gazteek gogotsu hartu eben parte ekimen honetan.

El próximo 12 de diciembre Olalde Aretoa acogerá la tercera edición de la Feria Gazte Sortzailea, una iniciativa que busca trabajar el emprendizaje y la idea de negocio con el alumnado de entre 14 y 17 años de los cinco centros escolares de Mungialdea.

# Curso de multioficios para menores de 30 años

El objetivo principal del programa Gaztedi Mungialdea sigue siendo el fomento de empleabilidad de las y los jóvenes de nuestra zona y para eso la preparación es fundamental. Con ese fin, **a partir de octubre,** y dentro de UDAL GAZTEDI 2019, tendrá inicio el curso de multioficios dirigido a **personas de entre 18 y 30 años** de Mungialdea.

En esta formación se darán estudios teórico-prácticos de pintura y del campo de la albañilería. Además, a quienes participen se les dará la posibilidad de realizar prácticas remuneradas en empresas de Mungialdea.

18 eta 30 bitarteko gazteei zuzendutako pintura eta igeltserotza arloei buruzko lanen ikastaroa hasiko da urrian; gure eskualdeko gazteen lan merkaturatze sustapena bultzatzeko asmoagaz.

# Mungialdeko Behargintza forma parte de la Red de Agentes Hazinnova

Mungialdeko Behargintza ha firmado un acuerdo de colaboración con Innobasque para fomentar la innovación entre las empresas de la comarca. En este aspecto, la agencia de desarrollo local del Ayuntamiento de Mungia ha pasado a formar parte de la Red de Agentes Hazinnova.

La iniciativa Hazinnova es un **servicio gratuito de consultoría y acompañamiento** para la implementación de nuevas formas de organizar el trabajo o nuevos métodos para comercializar los productos y servicios de la **pequeña y mediana empresa** industrial o de Servicios conexos a la industria.

## Hazinnova Agenteen Sareko parte da Mungialdeko Behargintza

Mungialdeko Behargintzak eskualdeko enpresen arteko barrikuntza sustatzeko lankidetza-akordioa sinatu dau Innobasquegaz. Horren ondorioz, gure udaleko garapen lokaleko agentzia Hazinnova Agenteen Sarearen parte izatera pasatu da.

Hazinnova ekimena enpresa txiki eta ertainen produktu eta zerbitzuak edo industriari loturiko zerbitzuak **merkaturatzeko metodo barriak ezartzeko** eta baita **lana antolatzeko era barrien inplementazioari buruz aholkatzeko** eta laguntzeko **doako zerbitzua** da.

# Mungia ezagutzeko mapa turistiko barriak

Con el fin de atraer a las personas visitantes y facilitar su estancia, desde el Ayuntamiento hemos publicado nuevos mapas turísticos con todos los detalles de la localidad.




Udalak plano turistiko barriak plazaratu dauz bisitariak erakartzeko asmoagaz.

Bertan azaltzen dira gure herriko ondare historikoa, natura ibilbideak, turismo aktiboa, bisita gidatuak, herriko eta auzoetako ostalaritza establezimendu eta ostatuak eta abar, bisitariek inguru guztiak ezagutu daizezan.

# Landetxo Goikoa baserrirako seinale barriak jarriko dira



En los próximos meses se colocarán nuevas señales que indiquen la ubicación del caserío Landetxo Goikoa de cara a las visitas.

Gure herriaren ikur handienetakoa da Landetxo Goikoa baserria, eta hori bisitariei adierazoteko seinale barriak jarriko doguz bidean datozan hiletan. Seinaleztapen hau Bizkaiko Foru Aldundiak eskainitako laguntza baten bidez burutuko da. Horren helburu nagusia Bizkaiak jasoten dauen turismo-fluxuaren banaketea hobetu eta optimizatzea da.

# Balance de las visitas guiadas a Landetxo Goikoa

Como ya se hiciera en Semana Santa, durante los meses de julio y agosto se han ofrecido visitas guiadas para conocer el caserío de Landetxo Goikoa. Durante una hora, las y los visitantes que se han acercado a esta visita han tenido la oportunidad de conocer el edificio histórico y de aprender a hacer talo. Esta oferta que ha unido el patrimonio y la gastronomía ha tenido una recepción inmejorable entre el público. Además de visitantes del estado español, turistas de diferentes países de Europa también se han acercado a conocer el caserío.

Udan zehar Landetxo Goikoa ezagutzeko egindako bisita gidatuek eta bertan egindako talo-tailerrek harrera paregabea izan dabe.

# El mercado de trabajo en Mungia

## Cifras actualizadas

Crear y ayudar a conseguir nuevos empleos es una de nuestras prioridades. Según los últimos datos de agosto, actualmente en Mungia **el índice de paro es del 8,9%,** por debajo de Bizkaia (11,9%) y de Euskadi (10,9%).

En los ejercicios 2013-2014 se alcanzaron los niveles más elevados de personas desempleadas registradas desde el inicio de la crisis en 2008, mientras que **actualmente nos encontramos en los niveles más bajos.**










En el primer semestre de 2019 **Mungialdeko Behargintza ha gestionado 147 ofertas de empleo**, de las cuales 27 eran del ámbito comercial, 24 de carácter hostelero, otras 24 de carácter industrial, 7 del sector primario, 12 del sector construcción y 53 del sector servicios.

Asimismo, en el primer semestre **se han insertado laboralmente 129 personas** usuarias del centro mediante ofertas propias y externas al centro. De entre ellas 73 son mujeres y 56 hombres.

**115 DE LAS PERSONAS INSERTADAS PARTÍAN DE SITUACIÓN DE DESEMPLEO Y 14 DE SITUACIÓN DE MEJORA DE EMPLEO.**

De entre las inserciones laborales 33 personas son menores de 30 años, 51 de entre 30 y 40 años y 45 personas mayores/o de 45 años de edad.

## Mungiako lan merkatuaren gaur eguneko egoerea

Lanpostu barriak lortzea eta sortzea gure lehentasuna da. Akabuko datuen arabera, Mungiako langabezia %8,9koa da, Bizkaikoa eta Euskadikoa baino baxuagoa.

2019ko lehen seihilekoan Mungialdeko Behargintzak 147 lan eskaintza kudeatu dauz eta 129 pertsonari lagundu deutse lan merkatuan sartzen. Eurotarik 73 emakumeak izan dira eta gehienak 30 eta 44 urte bitartekoak.

# Gurasoen Eskola 2019-2020

Gurasoen Eskola 2019-2020 antolatu dogu Udalean Adikzinoen Prebentzinorako Zerbitzuagaz alkarlanean. Ekimen familiei zuzenduta dago eta datorren **zemendiaren 11n hasiko** da.

Gurasoei euren heziketa-lanean laguntzeko egindako proiektu honen hirugarren edizinoa da. Bertan **zalantzak argitu eta hezteari loturiko egonezinak partekatzeko espazioa eskaintzen da.**

Jorratuko diran gaiak egunerokoak izango dira, adimen emozionali indar berezia emonda. **Hamar saioko hiru modulu** desbardin eskaintzen jarraituko dogu, seme-alaben adinaren arabera bananduta: 3 eta 6 urte bitartekoa, 7 eta 11 urte bitartekoa eta 12 eta 16 urte bitartekoa.

Izen-emote epea urriaren 14tik egongo da irekita eta bide desberdinak erabiliz egin ahal izango da:

- Aurrez aurre: HAZ edo Adikzinoak Prebentziorako Zerbitzuan
- Posta elektronikoz: gizartekintza@mungia.eus edo prebentzioa@mungialde.eus
- Telefonoz: 94.655.87.14 / 94.404.77.07

Desde el Ayuntamiento, y con la colaboración del Servicio de Prevención de Adicciones, hemos organizado la Escuela de Madres y Padres 2019-2020. La tercera edición de este proyecto dará **comienzo la semana del 11 noviembre** y tiene como fin ayudar a las madres y padres en su labor educativa, ofreciendo un espacio donde se puedan resolver dudas y compartir inquietudes relacionadas con la crianza.

Los temas tratados serán cotidianos, haciendo **especial hincapié en la inteligencia emocional.**

# El Programa Jagoten vuelve en octubre

Jagoten Programa martxan jarriko da atzera urrian, hain zuzen bere, estimulazino kognitibo eta logopedia tailerrakaz; horregaz batera, menpekotasuna daukien etxekoak jagoten dabezanentzako laguntza talde bat bere egongo da. Horren ganera, formazino kurtsoak eta hitzaldiak antolatuko dira.

Tras la pausa veraniega este octubre se reanudarán, dentro del Programa Jagoten, los **talleres de estimulación** cognitiva y logopedia además del **grupo de autoayuda** para personas cuidadoras de familiares con dependencia. Asimismo, se organizarán nuevamente **cursos de formación y charlas.**

En lo que va de año han sido **más de 80 personas** las que han tomado parte en el programa.

Igualmente cabe destacar los **talleres intergeneracionales** que se celebran mensualmente en la Residencia San José Etxe Alai, y en la que el curso escolar pasado participaron más de 150 alumnas y alumnos de Bentades Ikastetxea, IES Mungia BHI y Larramendi Ikastola.

# Proyecto de musicoterapia

La Escuela Municipal de Música iniciará, a partir de octubre, un novedoso proyecto de musicoterapia dirigido a las personas **residentes en San Jose Etxe-Alai Egoitza**. Y es que, son muchos los estudios que han demostrado que trabajar con la música puede ser muy **beneficioso**, también para aquellas personas con mayor deterioro cognitivo o funcional.

De esta forma se **organizarán diversos grupos en función de las capacidades y del grado de autonomía** de las personas que tomen parte.

# Nueva campaña de civismo

## Hiritartasun kanpaina

Bizikidetasuna balore positiboen gainean eraikitzeak aberastu egiten gaitu eta hori holan izateko beharrezkoa da danon konpromisoa. Ereduzko jarrera daukagunean, ohiturak sortzen doguz gure ingurunean; hori dala eta, keinu txikiek garrantzi handia daukie.

Herritarrak sentsibilizatzen jarraitzeko asmoaz, eta orain dala urte bi gizalegeari eta espazio publikoen zaintzari buruz egindako kanpainari ekiteko, kanpaina barri bat sortu da. Materiale eta ekintza desbardinak prestatuko dira, beste udal zerbitzu batzuekaz alkarlanean.

### Sensibilizando a la ciudadanía

Cuando tenemos una actitud ejemplar, creamos costumbres en nuestro entorno. Por eso son tan importantes los pequeños gestos de la ciudadanía, ya que de ese modo se crean modelos a seguir.

**CONSTRUIR LA CONVIVENCIA SOBRE VALORES POSITIVOS NOS ENRIQUECE, Y PARA ESO, ES NECESARIO EL COMPROMISO DE TODAS Y DE TODOS.**

Desde el Ayuntamiento queremos poner en valor y promover esas actitudes ejemplares del día a día. De esta forma queremos dejar de lado la desigualdad entre mujeres y hombres; promover las relaciones intergeneracionales; disfrutar de la diversidad y la diferencia y vivir el deporte huyendo de la competencia.

**En la nueva campaña se dispondrá de material en diversos formatos y se llevarán a cabo actividades en coordinación con otros servicios municipales.**

Con el fin de continuar sensibilizando a la ciudadanía, y siguiendo con la campaña de civismo y cuidado del espacio público realizada hace dos años, se ha diseñado una nueva campaña. Se dispondrá de material en diversos formatos y se llevarán a cabo actividades en coordinación con otros servicios municipales.

# Festival Internacional de Cine Invisible

### 21 filmes y documentales

Torrebillela Kultur Etxea acogerá un año más el Festival Internacional de Cine Invisible *Film Sozialak*.




En el festival, que se llevará a cabo los próximos días **18, 19 y 20 de octubre**, se exhibirán 21 filmes y documentales alejados de la cartelera comercial. Estos abordarán temáticas que invitan a la reflexión y a fomentar una conciencia crítica **en torno a diversos temas y problemáticas** que afectan a nuestra sociedad.

Datorren urriaren 18, 19 eta 20an Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia jasoko dau Torrebillela Kultur Etxeak. Bertan, gai desberdinen inguruko gogoeta eta pentsamendu kritikoa sustatzen bultzatuko gaituen 21 pelikula eta dokumental eskainiko dira.

**Aurtengo pelikulak**
- ETA ZU? KONTURATUKO ZARA?
-MAKING OF “VOLVER”
-THE GRAFFITI
- AMA
- TERRA
- EN BOCA DE TODAS
- BIRTHPLACE
- VICTORIA
- DONDE NOS LLEVE EL VIENTO
- EN BUSCA DE UN ESPACIO
-TIMBÓ
- LAATASH
- OYENTES
- WHITE
- SKIN
- WANTOKS: DANCE OF RESILENCE IN MELANESIA
- ERAN OTROS TIEMPOS
- ASSIA
- IRAULTZAREN HAZIAK
- FRAGMENTOS
- DÓNDE IRÁN – EL DOCUMENTAL

# Ikasleentzako ekintza-programa biribila

Seguimos apostando por fomentar diversos valores entre las niñas y niños y la juventud de nuestro municipio. Así, en septiembre se ha puesto en marcha la programación acordada entre los centros educativos de Mungia y el ayuntamiento. Esta comprende una **amplia y variada oferta** de talleres, charlas, visitas, exposiciones, teatro y otras actividades **coordinadas y financiadas por el Ayuntamiento.**



Ikastetxeko desbardinetako ikasleek Udalagaz batera egiten dabe lan.

## Udala eta ikastetxeak alkarlanean

Programa hau Mungiako Udalak Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Mankomunitateak, Mungialdeko Behargintzak eta herriko ikastetxe guztiek garatzen dabe alkarlanean.

Gure herriko ume eta gazteen artean balore desbardinak sustatzeko, orain dela 15 urte baino gehiago egindako apustuari ekinda, urtero ikastetxe guztietan bideratzen dogun ekintza-

Irailean martxan jarrita daukagu Mungiako ikastetxe guztiakaz batera aurreikusitako eta lotutako programazinoa. Bertan tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, irteerak, pelikulak, antzezlanak eta beste hainbat ekintza dagoz jasota, danak Udalak koordinatu eta finantzatutakoak.

Programa hau Mungiako Udalak Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Mankomunitateak, Mungialdeko Behargintzak eta herriko ikastetxe guztiek garatzen dabe alkarlanean.

# Niñas y niños con altas capacidades

## Charla con más de 100 personas

Torrebillela Kultur Etxea acogió el pasado mayo a más de 100 personas en una **charla informativa** sobre niñas y niños con altas capacidades que impartió la Asociación Aupatuz en respuesta a la petición de varias familias del municipio.

**Esta asociación desarrolla acciones de información y sensibilización encaminadas a dar a conocer las características, necesidades o formas de detección** de las altas capacidades. Esto ayuda a que las necesidades educativas especiales de los menores sean debidamente atendidas, ya que de lo contrario, puede suponer un hándicap en su desarrollo emocional y social.

*Aupatuz Elkarteak* adimen gaitasun handiko umeen ganeko hitzaldia eskaini eban maiatzean Torrebillela Kultur Etxean. 100 entzule baino gehiago batu ziran bertan.

# Oporrak Bakean programa



Programa honetan parte hartu daben familia, umeak eta udal ordezkariak Uriguen parkean.

## Saharako eta Txernobylgo umeak

Gure herriko familiek **Tindouf kanpamendutik etorritako hiru neska-mutil eta Txernobyletik etorritako neska bi jaso dabez** etxean, barriro bere uda berton pasau daien, Oporrak Bakean deritxon programearen barruan.

Ongi etorria joan dan garagarrilaren 3an egin jaken Izenaduba Basoan eta bertan alkateak, Ager Izagirrek, eta Gizarte-ekintza eta Bardintasun Arloko alkateordeak, Bakarne Egiak, hartu eben parte. Larrabetzuko bakeleku-udalekuan egozan umeei bere ondo etorria emon eutsien.

Kooperazino-proiektu solidario honen bitartez ume horreei **benetako oporrak izateko** aukera eta hilabete batzuetan **kanpamentuetako baldintza gogorretik urrun biziteko aukerea** ematen jake.

**Varias familias de Mungia han acogido** a niñas y niños **provenientes de los campamentos de Tindouf y Chernobil** para que tengan la posibilidad de disfrutar de unas vacaciones reales, viviendo unos meses lejos de las duras condiciones de los campamentos. En el acto también tomaron parte las niñas y niños del bakeleku-udaleku de Larrabetzu.

# Punto y Postre solidario

La Asociación de Mujeres DIZ-DIZ organizó el pasado 22 de junio una jornada de Punto y Postre solidario en Andra Mari Gunea, en el que se exhibían y vendían prendas de punto, así como distintos postres elaborados por la asociación y personas participantes. El objetivo de este evento era recaudar fondos que se destinaron a ayudar a la familia de una niña con una enfermedad rara denomidada Cornelia de Lange. Esta iniciativa resultó todo un éxito de público y de recaudación.

Diz - Diz
Mungiako Emakumeen Kultur Alkartea

Zorionak eta mila esker Diz-Diz eta bertaratu zineten guztioi!

Diz-Diz elkarteak puntu eta postre solidarioen ekimena prestatu eban pasa dan bagilean. Bertan puntuz eginiko janzkiak erakutsi eta saldu ziran eta batutako diruagaz alabea gaixorik daukan familia bati lagundu jako.

# IV Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres




## Se estima que el Plan esté redactado para finales de año

La finalidad de un Plan para la Igualdad es, por un lado, tratar de eliminar las desigualdades o discriminaciones que existen en una sociedad por razón de sexo, y por otro, integrar la igualdad de trato y de oportunidades entre mujeres y hombres. Para ello **establecemos en el Plan los objetivos y las medidas que trabajaremos para terminar con esos desequilibrios y desigualdades.**

En 2018 comenzamos, desde el ayuntamiento, con el proceso de elaboración del IV Plan evaluando el camino recorrido hasta el momento y diagnosticando los puntos fuertes y débiles. Con ese fin realizamos entrevistas y talleres con el personal de la administración, colectivos diversos, grupos de mujeres, agentes municipales y sondeamos también la opinión de la ciudadanía con una encuesta a través de redes sociales.

**PARA REALIZAR EL PLAN CONTAMOS CON SUBVENCIÓN DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER Y AYUDA TÉCNICA DE ELHUYAR AHOLKULARITZA.**

Con la información recopilada, durante el último trimestre convocaremos un taller donde **los y las mungiarras podréis hacer las aportaciones que consideréis al borrador del Plan.** El nuevo Plan tendrá también como objetivo la visibilización del colectivo LGTBI.

Una vez recogidas todas las aportaciones, estimamos que este Plan esté redactado para finales de año.

## Bardintasuneko IV. Plana

2018an, Udalaean Bardintasuneko IV. Plana lantzeko prozesuari ekin geuntson; hain zuzen bere, ordura arte **egindako ibilbidea eta puntu sendo eta ahulak ebaluatuta**. Helburua hori dala, hainbat alkarrizketa egin doguz herriko talde desbardinakaz.

Bildutako informazioagaz, urteko akabuko hiruhilekoan zehar lantegi bat eratu dogu eta mungiarrok zuen ekarpenak egin ahal izango dozuez proiektuaren zirriborroan. Plan barriak **LGTBI kolektiboaren ikusgaitasuna** bere izango dau helburu.

Behin ekarpen guztiak jasota, Plan hau **urte bukaerarako idatzita** egongo dala aurreikusten dogu.

# JAIETAN BERE, EZ BETI DA EZ

Emakumeen kontrako bortizkeria-adierazpenek inongo lekurik ez daukien bardintasunean oinarritutako jai ereduak bultzatzeko, Udaletik bai San Pedro eta bai auzoetako jaietara bideratutako kanpaina bat bultzatu genduan.

Txosnakaz batera gertatu keitekezan erasoen aurrean martxan jartzeko erantzun-protokolo bat adostu zan eta sentsibilizazino materiala banatu zan taberna, txoko, lonja eta txosnetan (erasoari erantzuna emoteko jarraibide eta telefonoak daukiezan kartelak, txapak eta paperezko zapiak).




## NO ES NO DURANTE LAS FIESTAS Y SIEMPRE

Con la idea de promover modelos festivos basados en la igualdad donde no tenga cabida ninguna manifestación de violencia contra las mujeres, desde el ayuntamiento se impulsó una campaña tanto para las fiestas de San Pedro como para las fiestas de los barrios.

Se consensuó, junto con las txosnas, un protocolo de respuesta ante las posibles agresiones y además se repartió material de sensibilización (carteles con instrucciones y teléfonos para ofrecer respuesta a una agresión, chapas y servilletas de papel) en bares, txokos, lonjas y txosnas.

# Primera beca para releer la historia de las mujeres de Mungia

La primera beca para indagar en la historia de las mujeres de Mungia se concedió en el segundo semestre del 2018 al investigador Sebastián Piedrabuena. Tras meses de trabajo, se le dio una prórroga de 4 meses para elaborar un video que recogiera las aportaciones de las mujeres participantes.

El objetivo de esta investigación ha sido **conocer cómo las mujeres vivieron** la guerra. Es su verdad, la verdad de las mujeres, la que el investigador deseaba reflejar a través de este proyecto. En él queda reflejado que las mujeres no se libraron de la represión durante la contienda ya que fueron encarceladas, castigadas…lo que significa que representaban un desafío a la estructura del momento.

**Vista la labor llevada a cabo a finales de año publicaremos las bases para la segunda beca.**

Mungiako emakumeen historia ikertzeko 2018an emondako bekaren bidez, gerra garaian emakume ezbardinek bizitako oroitzapenak jaso dira. Lanaren emaitza ikusita, urtearen amaieran bigarren beka argitaratuko dogu.

# Ligoteo sanoa? Bai!

## Bardintasunean oinarritua

Udaletxetik, eta Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatearen Prebentzino Zerbitzuaren bitartez, **gazteei zuzendutako ligoteo sanoko tailerra** jarri dogu martxan.

Tailerra hilero egingo da Gaztegunean eta bere helburuak ondokoak dira: ligoteoari buruz hausnartzea; bardintasunean, errespetuan eta zuzentasunean oinarritutako sexuen arteko hartu-emonak bultzatzea; eta enpatia, komunikazinoa eta adierazpen emozionala bezalako trebetasunak garatzea.

Espazio honen bidez, ligoteoa askatasun, erosotasun, segurtasun eta gozamen sentimendu positiboetatik bizitzea bilatzen da. Euren arteko hartu-emonak, bai alde emozionalean eta bai sexualean, osasuntsuak izan daitezen lortu beharra dago.



Gazteen arteko erlazio sanoak sustatzeko tailerrak hilero egingo dira.

### ¡Si al ligoteo sano!

**Basado en la igualdad**

Desde el Ayuntamiento, y a través del Servicio de Prevención de Adicciones de la Mancomunidad Mungialde de Servicios Sociales, hemos puesto en marcha un taller de ligoteo sano dirigido a la juventud.

El taller, impartido cada mes en el Gaztegune, tiene como finalidad reflexionar sobre el ligoteo, favorecer las relaciones entre sexos basadas en igualdad, respeto y equidad y desarrollar habilidades como la comunicación, la empatía o la expresión emocional.

# Nuevos juegos cooperativos

## Estimulando la empatía

El Gaztegunea ha incorporado a su oferta los nuevos juegos cooperativos de Dobble, Jungle speed, Grimaces y Twister.

Estos juegos de mesa o físicos se basan en la cooperación y colaboración de las y los integrantes. Asimismo incentivan la creatividad, imaginación, empatía y colaboración entre el público adolescente.





### Jolas kooperatibo barriak

**Enpatia estimulatuz**

Gazteguneak taldean jolasteko joko kooperatibo barriak ekarri ditu, besteak beste, Dobble, Jungle speed, Grimaces eta Twister.

Mahai-joko horreek lankidetzan eta alkarlanean oinarritzen dira. Euron bitartez nerabeen artean sormena, irudimena, enpatia eta kolaborazinoa sustatzea lortzen da.

# Ampliación de las instalaciones en el Polideportivo Municipal



## Cubrimiento y acondicionamiento de la terraza

Con el fin de **satisfacer la demanda de las personas usuarias** del equipamiento y en respuesta al resultado de los primeros presupuestos participativos, **se cubrirá y acondicionará la terraza** del Polideportivo Municipal para ampliar sus instalaciones. Asimismo, con ello deseamos fomentar el desarrollo de la actividad física y unos hábitos de vida saludables a través de la práctica deportiva.

**LAS DOS SALAS CENTRALES PODRÁN UNIRSE CREANDO UN ESPACIO AMPLIO ÚNICO.**

Este proyecto permitirá **habilitar cuatro salas, una zona de aseos, una sala de instalaciones y una terraza,** dotadas de un nuevo volumen con formas orgánicas y diseño curvo, tal y como se muestra en la infografía.

Las actuaciones cumplirán con los criterios de sostenibilidad económica y ambiental, junto con la utilización de materiales de bajo coste energético y contaminante.

Las dos **salas centrales tendrán la posibilidad de unirse formando un solo espacio**, mientras que la que da a la zona de las piscinas podrá abrirse a la terraza. En cuanto a la sala multiusos, se plantea una chapa perforada con el fin de reducir el soleamiento. La propuesta cuenta con una valoración económica de 423.474,59 €.

Las actuaciones cumplirán con los criterios de sostenibilidad económica y ambiental, junto con la utilización de materiales de bajo coste energético y contaminante.

## Areto barriak Udal Kiroldegian

Erabiltzaileek hornikuntzarako egindako eskariak asetzeko, lehen aurrekontu parte-hartzaileen emaitzari erantzunda, Udal Kiroldegiko terrazea egokitu eta estaliko da instalazinoak handitzeko.

Proiektu honen bitartez ondokoa antolatuko da: lau areto, komunetarako eremu bat, instalazino areto bat eta terrazea. Areto zentral biak batu eta eremu zabal bakarra sortu ahal izango da. Horren ganera, igerilekuetara emoten dauen aretoak terrazarako sarbidea izango dau.

Proposamen honek 423.474,59€-ko balioespen ekonomikoa dauka.

# Udagoien eta negurako kartel biribila dakar Olalde Aretoak



La programación de otoño-invierno del Olalde Aretoa viene cargada de novedades como el espectáculo infantil El regreso de Scar-Tributo al Rey León, el musical Go!azen 6.0 y el teatro de comedia ácida *Erlauntza*.






## Gustu guztietarako ikuskizunak

Ikasturte barriagaz batera, Olalde Aretoan **aniztasunez betetako, ekintzez** gozatu ahal izango dogu. Gure helburua, beti bere **kalidadeko egitarau kulturala eskaintzea** da, bai bertoko herritarrentzat eta baita kanpotik datozanentzat bere. Olalde Aretoa euskal kulturaren erreferente dogu Bizkaia mailan eta aurrerantzean bere holan izatea gura dogu.

**Urrian hasi eta abendura arte,** honeek izango dira Olalde Aretoan izango doguzan **ekitaldietako batzuk:**

**Urriak 25** > El regreso de Scar- Tributo a El Rey León (ume-ikuskizuna)

**Urriak 26** > Erlauntza (antzezlana)

**Zemendiak 16** > 20.000 Legoa itsaspeko bidaian (ume-antzezlana)

**Abenduak 29** > Go!azen 6.0 (gazteentzako musikala)

# Jairik jai ibilteko beti prest

En verano nuestro municipio se llena de ambiente con las fiestas de San Pedro y nuestros barrios. El objetivo es hacer unas fiestas populares y positivas, y eso no sería posible sin el trabajo de las asociaciones. Las festividades de los barrios son una parte importante de nuestra identidad.

Urtero legez, udak gure herriko eta auzoetako jaiak ekarri ditu. San Pedro jaietako giro apartagaz eta parte-hartze handiagaz hasi ginan, eta auzoetako jaiek bere bide positibo eta alai horri eutsi deutsie.

Helburua jaiak herrikoiak izatea da, izan bere, auzoetako jaiak gure nortasunaren parte garrantzitsua dira, eta egitaraua edade guztietarako egokiak diran ekimenakaz hornitzea. Auzoetako jaietan, txapelketa gastronomikoen ganera, umeentzako jolasak, puzgarriak, herri-kirolak, herri-bazkariak, karta-jokoak, txikientzako disko-festak eta gaueko erromeriak eta beste hainbat jarduera antolatu eta eskaintzen dira.

**HORREN PARAJEKOAK ETA GEURE-GEUREAK DIRAN JAIOKAZ GOZATZEKO, AUZOETAKO ALKARTEEN LANA EZINBESTEKOA DA.**













# LORE JOKOAK

Aurtengoan, Lore Jokoen XV. edizinoa ospatuko dogu. Jai berezi horrek aukera ezin hobea emongo deusku gure nortasuna eta iragana erakusteko eta berreskuratuteko. Aurreko urteetan lez, 100 urte atzera egin eta garai haretako bizimodua irudikatuko dogu.

**Gure antxinako usadioak eta gure arbasoen bizipenak ekarriko doguz gogora.**

Herritarron eta alkarteen laguntzari eta parte-hartzeari esker, bai jantzi eta bai antxinako dekorazinoaren bidez, beste garai batera bidaiatuko dogu  datorren urriaren 27an.

El próximo 27 de octubre,  en la  XV. edición de Lore Jokoak, Mungia recreará su pasado y mostrará su historia y costumbres, retrocediendo 100 años en el tiempo.



MUNGIA
UDALA

**ARGITARATZAILEA:**
MUNGIAKO UDALA: Trobika,  1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16 / komunikazioa@mungia.eus  / www.mungia.eus
**ALE KOPURUA:** 7.000
**LEGE GORDAILUA:** BI•2224/2012

Mungin geure ikurrek